



## HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2014/04/09

BILERA ZENBAKIA:4

ORDUA ETA LEKUA: udaletxean arratsaldeko 19:00etan

PARTEHARTZAILEAK: 15 parte hartzaile (5 gizonezko eta 10 emakume).

### EGINDAKO LANAREN LABURPENA

#### LANDUTAKO GAI ORDENA

- **URKIKO JAIK:** Maiatzaren 3-4 egunetan. Programa iada lotuta dago. Udaletik komunikazioarekin lagunduko zaio. Deialdia egingo da jendea taldetxoan oinez igo dadin. Mintzalagunentzat oso irteera polita bezela ikusten da, arazoa data da zubi baten zati bai da.
- **HAURREN HERRIA:** 6. BILERA BURUTU DUTE. Komunikazio kanpainan murgilduta daude une honetan. Izena aukeratu ondoren, orain logoa egin ari dira. Proposamenak jasotzen ari dira eta ondoren hautaketa nola egin pentsatzen ari dira. Horrekin batera bideo bat ere egin nahi dute. Herri eguna aprobetsatu nahi dute horretarako.
- **BERDINBIDEAN:** 2 tailer egin dira . Agian ez da formatoarekin asmatu, izan ere ostiral arratsaldetan egin dira eta une horretan gazteak gaztelekua beste ekintza mota batzu egiteko erabiltzen dute. Aurrera begira formatua aldatzea erabakitzen da, agian larunbat bat horretarako soilik hartu.
- **LIBURUTEGIA:** Jende aurreko harrera, hilabetean behin egitearena bertan behera uztea erabakitzen da. Jendeak egun hori baina gehiago bide telematikoak erabiltzen ditu. Liburutegi Mailegu zerbitzua oso harrera ona izaten ari dela azaltzen da.
- **HERRI EGUNA:** Ekainak 14, larunbata. Egitaraua ondorengoa da.
  - 16:00-17:00 futbol txapelketa, herritar guztiei zabaldua
  - Triki- poteoa: Elkarte, Nautiko, Jubilatu Elkarte, Kaxintane.
  - Patata tortilla lehiaketa karreapen.
  - Ondoren afaria karreapen.
  - Kontzertuak gaztetxean. Oraindik guztiz lotuta ez badute ere hiru



talde izango dira.

- **PALA TXAPELKETA:** Eskolak pala txapelketa antolatuko du, goiko plazan. Astean zehar eskolako kirol orduetan eta ostiraletan herriko gazte eta apuntatzen den jendearekin. Apuntatzen den jendearen baitan ostiral gehiago edo gutxiago egingo dira. Bandoa prestatu beharko da kotxeak kentzeko. Pintxoak edo zerbait jartzea pentsatzen da.
- **POMADA IKASTAROA:** Maiatzaren 16an belarrak biltzera pasako gara; ondoren irakasleak belar horiek lehortzea beharrezkoa den edo ez jakiten dugunean eguna jarriko degu.
- **AURREKO EKINTZEN BALORAZIOA:**
  - Martxoak 14. Aldizkariaren afari merienda. Balorazio oso positiboa egiten da. Ekarken asko jaso ziren
  - Martxoak 23. Mendi irteera. Ez zen jende askorik bildu. Eguraldi txarra.
  - Martxoak 29, sagardotegira irteera mintzalagunak. 15 lagun elkartu ziren, jende gehiago espero zuten baina gainantzean ekintza oso ondo atera zen.
  - Apirilak 2. Liburu eguna. Separagailu lehiaketa oso ondo, 100 lanetik gora jaso ziren, lanketa eskolan eta familia giroan ere egin zen. Liburu bat piruleta bat ekintzan 40 liburu banatu ziren.
- **AURRERA BEGIRAKO EKINTZAK:**
  - Txakolindegira irteera apirilak 12. 10 lagun inguru apuntatu dira.
  - Aste santu ekintzak, ludoteka, gaztelekua
  - Maiatzak 9, gizarte ongizateetik eskaintzen diren zerbitzuen inguruko hitzaldia, Iker Uson.
  - Pala txapelketa eskola gazteak
  - Herritar batek, Nabarrelderan programazioren baitako hainbat ekintza aurkezten ditu, hurrengo bileratan lotzekotan geratzen gara.



ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
HURRENGO BILERA		
<p>Hurrengo bilera, Maiatzaren 21ean izango da egingo dugu, asteazkena, arratsaldeko 7tan Udaletxean.</p> <p>Gai ordena:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• KULTURA BATZORDEA. Abuztu eta Iraileko jaiak antolatzeko jai batzordea antolatzea.</li></ul>		